

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VILLALUENGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda jendaurrean jartzea, eta 2022ko bigarren seiheleko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2022ko bigarren seihelekoaren kontribuzio errolda osaturik eta 2023ko urtarrilaren 22an onetsirik, errolda jendaurrean jarrita egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek aztertu ahal izan dezaten eta egoki derizteten erreklamazioak aurkeztu.

Interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute kontzeju aretoan, eta alde zuzenetik jakinarazi beharko diote administrazio batzarreko lehendakariari, aretoa irekitzeko eguna eta ordua ezartzeko.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikulua 3. apartatua xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2023ko martxoaren 1ean hasi eta maiatzaren 2an bukatuko da, egun biak barne.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei beren zerga egoitzara bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikulua xedatutakoaren arabera.

Villaluenga, 2023ko urtarrilaren 26a

Lehendakaria
ISABEL BENAVIDES LOPEZ